

Otsoak zer dio?

Iraide Urkiaga

Denak: Auuuuuuuu!!!
Diana: Zein baso polita!
Maialen: Bai, errekaeren soinua entzun dezakegu.
Edorta: Aho zabalik geratu naiz.
Aketz: Txorien kantua ere entzuten da!
Ane: Oso soinu polita da.
Irene: Bai, baina aspertuta nago horrekin.
Nerea: Arrazoi duzu.
Garazi: Denbora luzez gaude hemen.
Aroa: Oso aspergarria da , ez dugu lagun berririk egiten...
Josu: Begira! Zer dago hor? Kobazulo bat dirudi!
Denak: Non??? Kobazuloa???
Jon: Begira! Hurbil gaitzke...

Musika. Korrika.

Ane: Bai, agian zeozer berria aurkituko dugu.
Maidar: Animo, dibertigarria izan daiteke!
Fernando: Goazen jolastera!

Koreografia.

Gara: Kobazuloan izan gara, eta ez dugu ezer aurkitu.
Maidar: Zergatik ez du inork gurekin jolastu nahi?

AUUUUUUUUU!!!

Edorta: Maltzurak garela pentsatzen dutelako.
Ane: Hori ez da egia!
Irune: Triste jartzen nau...
Diana: Lasai zaitetze, konponduko dugu.
Josu: Egoera honek aspertu egiten nau.
Jon: Zeozer egin behar dugu.
Ane: Jar gaitezen martxan!
Maidar: Bai... baina umeak...
Aroa: Belarjaleak gara! Ez zaigu okela gustatzen!

AUUUUUUUUUUU!!!

Musika. Koreografia.

Txerriak sartzen dira.

Gara: Ale, kontatu txistea berriro.
Nerea: Kar-kar-kar!!! Tripako mina daukat!!!
Diana: Ez dut txiste bat ere ez ulertzen...

Koreografia. Txerriak jolasten.

Otsoak sartzen dira.

Alazne: Zer entzuten dut? Zatozte!!!
Ane: Uaauuu! Txerriak daude!
Karina: Non?
Denak: Hor!!!
Denak: Txerriak! Zein ondo!
Ane: Gure aukera da, haiekin jolastuko gara!

Jon: *Idea bikaina!*
Josu: *Hemen primeran pasako dugu!*
Fernan: *Ale, ba. Animo!!!*

Musika. Koreografia.

Txerriak sartzen dira.

Gara: *Leku aproposa etxe bat eraikitzeko.*
Edorta: *Ondo! Lastozko etxea eraikiko dugu.*
Diana: *Han, zelaian, lastoa dago. Bila joango gara.*
Aketz: *Ederto! Zoazte, eta ekarri.*

Musika. Koreografia. Lasto bila.

Nerea: *Nahikoa ote da?*
Aroa: *Horrekin ez dugu ezta negua igarotzeko ere!*

Koreografia. Lasto bila.

Nerea: *Nahikoa ote da?*
Gara: *Nekatuta gaude!*
Diana: *Hasiko gara etxea egiten?*
Edorta: *Hasi!*

Abestia. "Txerriek egin nahi zuten lastozko etxea"....

Aketza: *Bukatu duzue?*
Aroa: *Zabaldu atea, zuekin sartuko gara!*

Otsoak sartu.

Alazne: *Uaauuuu! Zelako etxea!*
Ane: *Txerriek eraiki dute?*
Maidar: *Sartzen utziko digute?*

Txerriek abesten dute.

Ane: Uiiii! Zein pozik dauden! Entzun, zelan abesten duten!
Maidar: Begira! Tarta bat prestatu dut nire txerriei oparitzeko!
Ane: Zer??? Tarta??? Zerezkoa???

Maidar: Txokolatzkoa!
Josu: Zer entzun dut? Txokolatea? Ai amaaa!!!
Alane: Zer ohiu dira hoiek? Goazen txerriengana!
Josu: Txokolaterik ez! Txokolaterik ez!
Maialen: Ez zarete konturatzen ezin dugula txokolaterik jan?! Ez digu onik egiten...

Korina: Atxis, atxis atxis!!!! Aiiii, ezin dut... atxissss!!!
Ane::: Kontuz! Geldi! Etxea apurtuko duzu!Atxissssss!!!
Otsoak: Aiiiiiii! Etxea apurtu da!
Irune: Txerri gaixoak...
Txerriak: Aaaaaaaaa!!!
Gara: Azkar! Otsoek gure etxea apurtu dute!
Nerea: Jan egingo gaituzte!
Edorta: Beldur naiz!
Aketz: Hemendik alde egin behar dugu!
Aroa: 1,2,3 zenbatzean... ospa korrika!!!

Musika. “Korrika”ren abestiaren dantza.

Maidar: Txerrien etxea apurtu dugu!
Fernando: Barkamena eskatu behar diegu.
Ane: Goazen, barkamena eskatu behar diegu.
Otsoak: Bai horixe! Barkamena eskatzera!

Musika. Koreografia. Barkamena eskatzera.

Otsoak: Atxissssss!!!
Txerriak: Aaaaaaaaa!!!

